

DIRU-SARRERAK

Proiektuari hasiera emateko lehen bultzada ekonomikoa partaideok emango diogu. Lau kide izanik eta bakoitzak 2500€ ipiniz, 10000€ eskuratuko ditugu.

Hau izango da gure enpresa martxan jartzeko lehen pausoa. Horrez gain, hainbat agentziarekin kontaktuan jarriko gara, diru laguntzak eman diezazkigun, adibidez, Tolosaldea Garatzen.



Gure eguzki plakek sortutako energia kantitatea gastatutakoa baino handiagoa bada, gainproduzitutako energia elektrizitate sarera bideratzearengatik kobratzeko kontratua egingo dugu Iberdrolarekin.



Espaniako gobernuak eskaintzen dituen diru laguntzetaz baliatuko gara proiektuari babes ekonomiko handiagoa emateko. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak 500 enpresa proiektutara zuzenduko ditu diru laguntzak, guk bi hauen eskaerak egingo ditugu:

Gurea bezala, oinarri teknologikoa duten enpresei 25.000 eta 1,5 milioi euro artean emango zaizkie eta gazte ekintzaileei (40 urte arte) 25.000 eta 75.000 euro artean emango zaizkie.



MINISTERIO
DE INDUSTRIA, COMERCIO
Y TURISMO

Horrez gain, beste hainbat enpresei publizitatea eginez ere diru sarrerak lortuko ditugu. Gure proiektuarekin lotura duten enpresak, kotxeak ekoizten dituztenak dira: BMW, Tesla, Volkswagen... eta azken honekin kontaktuan jarri gara beraien kotxe elektriko berriei publizitatea egiteko.



Karga geltokia errepide ondoan egongo denez eta beraz, jende askorentzat ikusgai izango denez, leku aproposa da publizitatea ipintzeko. Kontratu egoki bat sinatuz gero, diru sarrera garrantzitsuak eman dakizkiguke.

PREZIOA (€/kW):	EKOIZPENA (hilabetero):	DIRU SARRERA (soberakinak Iberdrolari salduko dizkiogu antzeko prezioan):
0.6€/kW	25.000 kW	15.000€

Datu hauek hilabetearen arabera aldatuko badira ere, aproximazio bat egin dugu egunean 15 kotxe elektriko edo hibridok 50kW-ko depositua guztiz beteko dutela kontuan hartuta.